

LANEKI KATALOGO BERRIA Lanekiren 2022 katalogoa argitaratu da



Katalogoko informazio esanguratsua:

- jakinbai.eus-en nola eman alta
- materialak lanbide familiaka
- Prestatze bidean dauden materialak
- Hiztegi kolaboratiboa
- LH Duala euskaraz baliabideak
- Heziraul materialak
- Gidak: Lanenpres, Lanpres...

**Katalogo berria laster
zuen ikastetxean**



ARGITALPEN BERRIA

Motorrak liburua osorik argitaratu da jakinbai.eus webgunean:

[Deskargatu](#)


LH DUALA EUSKARAZ WEB GUNEA EGUNERATU DA

lhdualaeuskaraz.eus erreferentziazko web gunea da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan



Nola egiten ditugu gauzak?

Ikastetxeek, LH Duala euskaraz egiteko lankidetzan dihardute erakundeekin, lantokiekin, Garapen Agentziekin, elkarteekin... Jarraian LH Duala euskaraz praktika onak.



Ikusi LH Duala euskaraz praktika onak hemendik: [BIDEOAK](#)

IRALE DEIALDIA ARGITARATU DA

Irakastordu barneko eta kanpoko ikastaroak, 2022-2023 ikasturterako



Deialdia eta informazioa: [hemen](#)

ADI! Eskabideak aurkezteko epea: apirilak 25-maiatzak 16 (biak barne)

R400 IKASTAROA

Euskarazko ikasmaterialak sortzeko : idatzizkoak, ahozkoak, ikus-entzunezkoak

INFORMAZIO OROKORRA

IRAUPENA	365 ordu inguru (hiruhileko bat)	
HARTZAILEAK	Herri-ikastetxeetako langileak: irakasle funtzionarioak, finkoak, bitartekoak; ikastetxe pribatuetako irakasle finkoak. HE2, C1 edo hizkuntza-agiri baliokideari dagokion euskara-maila dutenak.	
ORDUTEGIA	Goizez, bosna ordu	
LEKUA	HASIERA	AMAIERA
Donostia, Eibar, Gasteiz, Bilbo	2022/09/07	2022/12/22

R400 ikastaroaren eskaerarekin batera aurkeztu behar da:

- Ikastetxearen baimen dokumentua. [Deskargatu](#)
- Egitasmo-txostena. [Deskargatu](#)

Oharra: Proiektu berarako irakasle batek baino gehiagok eskatu dezake R400 liberazioa. Halaber, kide bakoitzak egin behar du norbere eskaera .

R400 argibide gehiago: [HEMEN](#)

HIZKELAN VII JARDUNALDIA

Lanbide Heziketa eta lana euskaraz jardunaldia



Norentzat:

Lanbide Heziketako ikastetxeetako kideentzat (HNAT-ak, LH Dual arduradunak, tutoreak...), euskaraz lanean ari diren enpresa edota lantokientzat, erakundeetako ordezkarietzat, euskara eragile, teknikari eta besterentzat.

Hizkelan hitzordua gorde agendan:

Mendizabala LHII-n (Gasteiz), 2022ko urriaren 18a

ZUK ESAN !!! Proposatu [hemen](#) Hizkelanerako nahi zenituzkeenak:

- Intereseko gaiak
- Ikastetxearen praktika onak
- LH Dual eredugarriak
- Hizlariak
- Sortutako materialak
- Tresnak
- Etab.

